

myDNAmap
ugalkortasuna



myDNAmap
zure genetikaren potentzia

Genoma medikuntzako enpresa bat da **myDNAMap**. DNAn dagoen informazio osoa emateko xedearekin sortu zen, jendeak bere osasuna eta senitartekoena hobeto zaindu ahal izateko.

myDNAMap-ek zerbitzu oso eta bestelakoa eskaintzen du, prebentzio medikuntzaren alorrean. Genoma osoaren sekuentziazioa egiten dugu (norbanakoon osasunari eta ongizateari lotutako gene guztiak genomatik daude). Sekuentziazioaren aurreko eta osteko aholkularitza eskaintzen dugu, bezeroari zalantza guztiak argitzeko eta aurkitutakoa azaltzeko. Eta, gainera, **myDNAMap** aplikazioa garatu dugu: aplikazio mugikor bat, non bezeroek emaitzak kontsultatu ahal dituzten, osasunaren alorreko profesionalarekin eta zientzialariek harremanetan jarri ahal diren eta beren osasunari buruzko informazioa jasota utzi ahal duten (txosten genetikoak pertsonalizatzen lagunduko digu horrek). Esandakoaz gain, **myDNAMap**-ek eguneratzeak eskaintzen ditu urtero, genetikaren alorreko azken aurkikuntzekin.

Gutako bakoitza, geure DNA bezalaxe, bakarra eta errepikaezina da.

Zure profil genetikoak ezagutzeak lagundu egingo dizu zure osasuna eta familiakoena zaintzen. Gaur, bihar eta beti.




Kontsultatu beti **mydnamap.com** gure zerbitzuen azken eguneraketak ikusteko.



myDNAmap ugalkortasuna

Gure panelari esker, aukera izango duzu:

- ugalkortasunean eragina duten faktore genetikoak ezagutzeko.
- erabili daitezkeen tratamenduen gaineko erabaki informatuak hartzeko.



Nori zuzenduta dago myDNAmap Ugalkortasuna panela?



- Laguntza bidezko ugalketarako obulutegiaren estimulazio kontrolatua egingo duen paziente oro.
- Laguntza bidezko ugalketako lehenagoko tratamenduetan izandako akatsak: obozitoen kalitate txarragatik, ernalketa-arazoengatik, enbrioiairen garapena gelditu izanagatik.
- Obulutegi-hiperestimulazioaren sindromedun pazienteak.
- Arrazoi ezezagunagatik obulutegiko errreserba gutxitua duten emakumeak.
- Obuluak gorde nahi dituzten emakumeak.
- Haurdunaldia behin eta berriro zapuztu zaien pazienteak.




- Azoospermia (eiakulatzean espermatozoiderik ez).
- Oligozoospermia (espermatozoideek mugikortasun txikiagoa).
- Astenozoospermia larria (asaldura espermatozoideen mugikortasunean).
- Terazoospermia (asaldura espermatozoideen forman).
- Ernaltze-akatsak.

myDNAmap ugalkortasuna

Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, ernalezintasuna da haurdunaldia lortzeko ezitasuna, 12 hilabetez sexu-harremanak erregulariki eta antisorgailurik gabe izan eta gero.

Nahiko ugaria da ernalezintasuna: 6 bikotetik batek pairatzen du, gutxi gorabehera. Klinikoki, oso heterogeneoa da. Emakumeen zein gizonen ugalketa-sistemari eragiten dion etiologia konplexua du, eta zenbait faktoreren ondorio izan daiteke: anatomikoak, hormonalak, genetikoak, infekzioei lotutakoak, inguruneak, bizi-ohituraren alorrekoak.



myDNAmap ugalkortasuna

Ugalketari buruzko gaien gaineko kontsultak askotarikoa izan daitezke, eta, batzuetan, nahasmendu fisiko eta emozional ugari eragin ditzakete. Gaur egun, ez dago probarik norbanako osasuntsu bat berez (kanpoko laguntzarik gabe) aita/ama izateko gaitasun zehatza ezagutzeko aukera ematen duenik. Bikote gehienei, oraindik ere, ernalezintasun idiopatikoa diagnostikatzen diete, baina jotzen da 10 kasutik batean faktore genetikoaren ondorio dela ernalezintasun hori.

Ernalezintasunaren arrazoi nagusiak



Adina

Emakumeen erreprodukzio-potentzuala txikitu egiten da 35 urtetik aurrera

Gizonen erreprodukzio-potentzuala txikitu egiten da 45 urtetik aurrera

Gaixotasunak

% 10ek oinarri genetikoa du, eta heredatu eta transmititu egin daiteke

Lesioak ugaltze-apartuan: lesioak Falopioren tronpetan, endometriosis (endometrio-ehuna haztea umetokitik kanpo), miomak (umetokiko hormako muskulu lisoko zeluletatik sortutako tumore onberak).


Asaldurak espermatozoideen kalitate eta kopuruan. Hodi espermatozoaren buxadura/lesioa, eiakulazio-hodian zein uretran.

Sexu-transmisiozko gaixotasunak.
Gaixotasun kronikoak (adibidez: minbizia).
Gaixotasun hormonalak.

myDNAmap ugalkortasuna

Genomaren sekuentziarioan oinarrituta dago **myDNAmap** test genetikoa, eta zuzenduta dago semeak/alabak izateko prozesuari ekin aurretik beren profil genetikoa ezagutu nahi dutenei. Nabarmendu beharra dago bakarrik ebaluatzen dela ernalezintasunari lotutako aldaera genetikoaren arrisku potentziala. Horiez gain, testean aurreikusi ez diren faktore hartuak ere existitzen dira.

Gure panelak, beraz, emakumeen eta gizonen ugalkortasunean parte hartzen **duten 100 gene baino** gehiago aztertzen ditu. Emakumeetan, obulu-produkzioari lotutako geneak eta ugalketa- eta hormona-sistemako anomaliak harremana dutenak aztertzen dira. Gizonetan, berriz, ikertzen dira espermatozoideen morfologiari eta produkzioari lotutako geneak, eta ugalketa- eta hormona-sistemako anomaliak zerikusia dutenak.



myDNAmap ugalkortasuna

Ugalketa-prozesuan parte hartzen duen profil genetikoa aurretiaz ezagutuz gero, aukera egongo da erabilgarri dauden tratamenduen gaineko erabaki informatuak hartzeko ahalik eta lasterren, eta semea/alaba sortzeko ahalik eta potentzial handienarekin.

Aztertutako baldintzak



- Obulutegiaren hutsegite primarioa/Obulutegiaren disfunzioa
- Hipogonadismoa
- Haurdunaldiak behin eta berriro zapuztea
- Akatsa obozitoaren heltze-prozesuan
- Obulutegi polikistikoren sindromea
- Obulutegi-hiperestimulazio sindromea
- Haurdunaldiak etengabe zapuztea, tronbofilia dela eta




- Gutxiegitasun espermatogenikoa
- Hipogonadismoa
- Androgenoekiko sentsibilitaterik eza
- Hodi deferenteen sortzetiko gabezia
- Antzutasunari lotutako gizonetzkoen beste faktore batzuk

myDNAmap ugalkortasuna

Aztertutako geneak

ADGRG2, AIRE, AMH, AMHR2, ANOS1, AR, AURKC, BMP15, CAPN10, CATSPER1, CATSPER2, CCDC141, CCDC39, CCDC40, CDC14A, CFAP43, CFAP44, CFAP69, CFTR, CHD7, CYP11A1, CYP11B1, CYP17A1, CYP19A1, CYP21A2, DIAPH2, DNAAF2, DNAAF4, DNAH1, DNAH5, DNAI1, DPY19L2, ERCC6, ESR1, F2, F5, FANCA, FANCM, FGF8, FGFR1, FIGLA, FMR1, FOXL2, FSHB, FSHR, GALT, GATA4, GDF9, GNRH1, GNRHR, HFM1, HOXA13, HS6ST1, HSD17B3, HSD3B2, HSF2, INSL3, ANOS1 (KAL1), KISS1R, KLHL10, LHB, LHCGR, LRRC6, MAMLD1, MAP3K1, MCM8, MCM9, MRPS22, MSH5, NANOS1, NOBOX, NR0B1, NR5A1, PADI6, PANX1, PIH1D3, PLCZ1, PMFBP1, POF1B, PROC, PROK2, PROKR2, PROP1, PROS1, PSMC3IP, RSPO1, SEMA3A, SEPTIN12, SERPINC1, SLC26A8, SOHLH1, SOX10, SOX2, SOX3, SOX9, SPATA16, SRD5A2, SRY, STAG3, SULT2A1, SUN5, SYCE1, SYCP3, TACR3, TAF4B, TEX11, TEX15, TLE6, TUBB8, USP9Y, WDR11, WDR66, WT1, ZMYND15, ZP1

Lotutako panelak



myDNAmap neurologia

Gure aholkulari genetikoek emango dizuten **myDNAmap** txostenak honako arlo hauek hartzen ditu barne: kirola, elikadura, kardiologia, ugalkortasuna, minbizia, bateragarritasun genetikoa, arbasoak, farmakologia, adikzioak eta neurologia.

Erabilitako teknologia

Genoma osoaren sekuentziak (Whole genome sequencing – WGS), Illumina HiSeq X10 edo NovaSeq 6000 sistemetan egina (IlluminaPE150, Q30 \geq 80%), eta erreferentziako GRCh37/hg19 giza genomarekin lerokatuak. Aldaeren sailkapena eta analisisa, berriz, Genetika Medikoko eta Genomikoko Ameriketako Kolegioaren (ACMG) gomendioei jarraituta egiten dugu. Aldaera informatuak izendatzen ditugu Human Genome Variation Societyren (HGVS) gomendioen arabera.

Gure txostena: aurkikuntzen komunikazio zientifiko-teknikoa da, modu zehatz eta soilean idatzia, eta gure erabiltzaileei zein osasunaren arloko profesionali zuzendua. Gure aholkulari genetiko batekin izandako kontsultan entregatzen da (kontsulta hori bideokonferentzia bidez ere egin daiteke). Profesional espezializatuak xehetasunak azaltzen ditu, erabiltzailearen kontsultei erantzuten die eta sor daitezkeen zalantzak argitzen ditu.

Oharra: aldaera genetikoak aurkitzeak joera edo potentzialitatea bakarrik adierazten du; inola ere ez du ezartzen gaixotasunak ziurtasun osoz garatuko direla. Emandako informazio genetikoak ez du balioko diagnostikoa egiteko, eta ez du aukerarik emango zehazteko gaixotasunak zein adinatan hasiko diren edo zein larritasun-maila izango duten. Heterogeneotasun kliniko edo genetikoak egoteko aukera baztertzeara ere ez du ahalbidetuko informazio horrek.

Bibliografia:

- A systematic review and standardized clinical validity assessment of male infertility genes. 2019. PMID: 30865283
 - Human gene mutations causing infertility. 2002. PMID: 11897813
 - CFTR gene mutations and male infertility. 2000. PMID: 10755189
 - Fertility in patients with congenital adrenal hyperplasia. 2013. PMID: 24355046.
 - Primary ovarian insufficiency in classic galactosemia: current understanding and future research opportunities. Thakur M. et al. J Assist Reprod Genet. 2017.
 - Genetics of Female Infertility in Humans. 2014. PMID: 23499866
-





my**DNA**map

zure genetikaren potentzia



www.mydnamap.com
clientes@mydnamap.com